



Frantziak pentsioen erreformarako legea onartu du, zeinak erretiro-adina atzeratzen eta kotizazio-aldia luzatzen baititu	Aprobada la ley francesa de reforma de las pensiones que retrasa la edad de jubilación y aumenta el periodo de cotización
Lege berria (<i>Loi de financement rectificative de la sécurité sociale pour 2023</i>), apirilaren 14an iragarria, Konstituzioan jasotako izapide baten bidez onartu zen (49.3 artikulua), eta horri esker parlamentutik igaro beharrik gabe onartu ahal izan zen. Erreformaren bi neurri nagusiak hauek dira: • Erretiratzeko legezko adina pixkanaka atzeratzea, 2030ean 64 urtera iritsi arte (gaur egun 62 urte behar dira). Erretiratzeko legezko adina urtero hiru hilabete atzeratuko da pixkanaka, 1961eko irailaren 1ean jaiotako pertsonetatik hasita, 1968an jaiotako pertsonengana iritsi arte. Hain zuzen, azken hori izango da 64 urteko legezko adina aplikatuko zaion lehen belaunaldia. • Pentsioen % 100 kobratzeko eskubidea izateko eskatutako kotizazio-urteen kopuruaren igoera (gaur egungo 42tik 2027ko 43ra). Igoera urtero hiruhileko gehigarri bat izango da. 43 urtez kotizatu ezin dutenentzat, pentsioen % 100 kobratzeko erretiro-adina 67 urtekoa izango da. Lege horrek beste neurri batzuk ere biltzen ditu, besteak beste: • Lan-karrera luzeak dituztenentzat pentsatutako konpentsazio-sistema bat mantentzea. • 62 eta 64 urte bitarteko amentzako kotizazio-hutsuneak konpentsatzeko neurriak sartzea (% 5eko kotizazio gehigarria, adibidez). • Zahartzaroko aseguruia sortzea hirugarrenak zaintzen diharduten langileentzat. • Amatasunagatiko prestazioak kontuan hartzea 25 urte onenen zenbaketan. • Erregimen bereziak pixkanaka desagertzea (energia-enpresak, garraio-enpresak,...)	La nueva ley (<i>Loi de financement rectificative de la sécurité sociale pour 2023</i>), promulgada el 14 de abril, se aprobó a través de un trámite recogido en la Constitución (artículo 49.3) que permitió su aprobación sin necesidad de pasar por el parlamento. Las dos principales medidas de la reforma son: • El retraso progresivo de la edad legal de jubilación hasta los 64 años en 2030 (desde los 62 requeridos en la actualidad). La edad legal de jubilación se incrementará gradualmente en tres meses cada año, comenzando por las personas nacidas el 1 de septiembre de 1961, hasta llegar a las personas nacidas en 1968, que será la primera generación a la que ya se le aplicará la edad legal de 64 años. • El incremento en el número de años de cotización requeridos (desde 42 en la actualidad a 43 en 2027), para tener derecho a cobrar el 100% de la pensión. El incremento se producirá a razón de un trimestre adicional cada año. Para quienes no puedan cotizar 43 años, la edad de jubilación para cobrar el 100% de la pensión queda establecida en 67 años. La citada ley introduce, también, otras medidas, entre las que se destacan: • Mantenimiento de un sistema de compensación ideado para personas con largas carreras laborales. • Inclusión de medidas de compensación de las lagunas de cotización para las madres entre 62 y 64 años (extra-cotización del 5%, por ejemplo). • Creación de un seguro de vejez para el personal dedicado a los cuidados de terceros. • Inclusión de prestaciones por maternidad en el cómputo de los 25 mejores años. • Desaparición progresiva de regímenes especiales (empresas de energía, transportes,...)

Iturria: Geuk egina, Frantziako Aldizkari Ofizialean oinarrituta

Fuente: Elaboración propia a partir del Boletín Oficial de Francia